– Donostia-San Sebastiángo espetxean gauzatzeko, prebentzio- eta kalteak gutxitzeko Programa.

– Basauriko espetxean gauzatzeko, droga-menpekotasuneko Programak.

– Langraitz Okako espetxean gauzatzeko, droga-menpekotasunaren arloan esku-hartzeko programak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko martxoaren 1ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

– Programa preventivo y de reducción de daños en el centro penitenciario de Donostia-San Sebastián.

– Programas de Drogodependencias en el centro penitenciario de Basauri.

– Programas de intervención en toxicomanías en el centro penitenciario de Nanclares de Oca.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 1 de marzo de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 1147

40/2005 DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak sortzen dituena.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, honakoa ezartzen du bere 26. artikuluan: «1.– Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak elkarlanean arituko dira ikastxeekin irakaskuntzaren kalitatea hobeagotzeko».

Honakoak aipa ditzakegu hezkuntzarako laguntza-zerbitzuei egozten dizkien funtzioen artean: «Baliabideen kokagune izatea, ikastetxeen eskura egon arren, beren izaera edo neurriengatik berauetan eduki ezin daitezkeenetan» eta «pedagogiazko baliabide eta irakas-materialen dokumentazio eta mailegutzarako gune gisa aritzea.»

Bide beretik, honakoa ere badio aipatutako legeak: «Ikastetxeetarako Laguntza Zerbitzu gisa eta eskakizunei eta eskueran dauden baliabideei begira, Administrazioak eskola-bilgunea baino ihardun-eremu zabalagoko zein murritzagoko Laguntza Zerbitzuak eratu ahal izango ditu, beti ere aurreko atalkian ohartemandako koordinazio-arauak errespetatuz.»

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 1147

DECRETO 40/2005, de 1 de marzo, por el que se crean los Centros de Recursos para la Inclusión Educativa del Alumnado con Discapacidad Visual.

La Ley 1/1993 de 19 de febrero, de Escuela Pública Vasca, en su artículo 26 dispone que «1.– Los Servicios de apoyo a la Educación colaborarán con los centros docentes en orden a la mejora de la calidad de la enseñanza».

Entre las funciones que asigna la citada Ley a los Servicios de apoyo a la educación señala la de «Ubicar recursos que, aun estando a disposición de los centros, no pueden, por su naturaleza o dimensión, residir en los mismos» así como «actuar como centro de documentación y préstamos de recursos pedagógicos y materiales didácticos».

Del mismo modo señala que «con el carácter de Servicios de Apoyo a los centros, y en atención a las demandas y medios disponibles, la Administración podrá establecer Servicios de Apoyo de ámbito de actuación superior o inferior al de la circunscripción escolar, respetando las exigencias de coordinación previstas».

Eta honela jarraitzen du: «Lege hau garatzeko, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautuko ditu hezkuntza-sistemaren laguntzeko oinarrizko egiturak, eskola-bilgunearen eta ikastetxearen mailan laguntza eta aholkularitza-bideak indartzeko eta lege honen 3. artikuluak aipatzen dituen helburuak iristearren erakunde arteko lankidetza bultzatzeko beharrezko ekinbide guztiak kontuan hartuz.»

Haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko gaur egun ditugun baliabidetegiak —horiek irailaren 25eko 318/1984 Dekretuak sortu zituen eta garatu, berriz, 1984ko urriaren 10eko Aginduak, IBTen funtzionamendua baimentzen zuenak— Hezkuntza Sistemaren Antolamendurako Lege Orokorraren, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen eta Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Orokorraren aurrekoak dira. Hortaz, horien egitura ez dator guztiz bat gaur egungo euskal hezkuntza-sistemaren antolaketarekin.

Azkeneko urteetan aldaketa handiak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Berezian, eta horiek guztiak ondorengo lege eta aginduen bidez arautu dira: ekainaren 23ko 118/1998 Dekretua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena; 1998ko uztailaren 30eko Agindua, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza sistemako maila guztietara helarazteko dena; eta 1998ko uztailaren 24ko Agindua, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat curriculumera sartzeko egokitzapenak eta curriculumaren norbanako egokitzapenak arautzen dituena.

Aipatutako ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak honela dio bere 14. artikuluan: «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egoki iritzi dituen hitzarmenak izenpetu ahal izango ditu foru aldundiekin eta toki-korporazioekin, eta baita irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin eta erakundeekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzun egokiagoa emateko xedearekin, edozein motatako hezkuntza-premia berezi antzemateko, diagnostikatzeko eta arreta eskaintzeko lankidetzan jardunda». Horren arabera, lankidetza-hitzarmena egin zuten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta ONCE erakundeak, 2001eko uztailaren 16an, hain zuzen ere.

Hori guztia kontuan izanik, beharrezko iritzi zaio hiru lurralde historikoetan dauden haur itsu eta anbliopeak eskolan integratzeko baliabidetegien egitura eta administrazio-esparrua eguneratzeari. Horren bidez ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak sortuko dira.

Horren argitara eta Euskadiko Eskola Kontseiluari nahitaezko kontsulta egin eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, eta Gobernu Batzordeak martxoaren 1ean egindako bilkuran eztabai-

«En desarrollo de la presente ley, el Gobierno Vasco regulará por decreto las estructuras básicas de apoyo al sistema educativo, contemplando cuantas iniciativas sean precisas para potenciar los mecanismos de apoyo y asistencia en la circunscripción escolar y del centro y para impulsar la colaboración interinstitucional en la consecución de los objetivos a que se refiere el articulo 3 de la presente ley».

Los actuales Centros de Recursos para la integración escolar de niños invidentes y ambliopes creados por el Decreto 318/1984 de 25 de septiembre y desarrollado por medio de la Orden 10 de octubre de 1984, de autorización del funcionamiento de los CRIs son anteriores a la Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo, a la Ley de Escuela Pública Vasca, así como a la Ley Orgánica de Calidad de la Educación por lo que su estructura no se corresponde con la actual Ordenación del Sistema Educativo Vasco.

En los últimos años se han producido importantes cambios en la Educación Especial en la Comunidad Autónoma, que han culminado con su regulación por el Decreto 118/1998, de 23 de junio, de ordenación de la respuesta educativa al alumnado con n.e.e., en el marco de una escuela comprensiva e integradora y la Orden de 30 de julio de 1998, sobre criterios de escolarización del alumnado con n.e.e. y dotación de recursos, así como la Orden 24 de julio de 1998 de regularización de las adaptaciones de acceso al currículo y las adaptaciones curriculares individuales significativas para el alumnado con n.e.e.

El citado Decreto 118/1998, de 23 de junio, en su artículo 14, indica que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá suscribir los convenios que estime convenientes con las Diputaciones Forales y las corporaciones locales así como con entidades privadas e instituciones sin ánimo de lucro, con la finalidad de mejorar la respuesta a las necesidades educativas especiales de los alumnos y alumnas de la CAPV, mediante la colaboración en la detección, diagnóstico y atención de cualquier tipo de necesidades educativas especiales. En virtud del cual se ha establecido un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la ONCE con fecha 16 de julio de 2001.

Teniendo en cuenta estas circunstancias se ve necesario actualizar la estructura y el marco administrativo de los Centros de Recursos para la integración escolar de niños invidentes y ambliopes existentes en los tres Territorios Históricos, creando los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual.

En su virtud, una vez realizada la preceptiva consulta al Consejo Escolar de Euskadi y oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación,

datu eta onartu ostean eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenari jarraiki, honakoa

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
IKUSTEKO URRITASUNA DUTEN IKASLEAK HEZKUNTZAN BARNE HARTZEKO BALIABIDETEGIAK

*1 artikulua.–* Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak sortzea, hezkuntzan laguntzeko zerbitzu gisa. Horiek dekretu honetako I. eranskinean zerrendatu dira, eta bertan adierazi da zein herritan dauden kokatuta, beren funtzioak zein geografia-esparrutan beteko dituzten eta zein lanpostu izango dituzten.

*2. artikulua.–* Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiek unibertsitatekoak ez diren eta fondo publikoekin sostengatzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan jardungo dute. Horietako bakoitzaren geografia-esparrua dekretu honetako I. eranskinean adierazitakoa izango da.

*3. artikulua.–* Honakoei eskainiko diete hezkuntza-laguntza eta aholkularitza ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiek:

a) Ikusteko urritasuna duten ikasleak eskolatzen dituzten eta unibertsitatekoak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei.

b) Ikastetxeetan itsu diren edo ikusteko urritasuna duten ikasleei arreta zuzenean eskaintzen dieten hezkuntzako profesionalei eta gisa horretako ikasleak hezteko prozesuan esku hartzen duten hezkuntza-komunitateko eragileei.

c) Itsu diren edo ikusteko urritasuna duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako hezkuntza-etapa edo -maila guztietan eskolatutakoei, ikastetxe publikoetan nahiz itunpekoetan eskolatutakoak izan. Helduen Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasleei ere eskainiko zaie arreta.

d) Itsu izatetik edo ikusteko urritasuna izatetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen familiei, dagozkien tutoreekin eta, hala badagokio, dagokien Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietako aholkulariekin batera.

II. KAPITULUA
HELBURUAK ETA FUNTZIOAK

*4 artikulua.–* Hauxe izango da ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegien helburu nagusia: ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzea lortzea, eskolaren esparruan nahiz gizartean. Hezkuntza-komunitateko eragile guztiei eman beharko diete aholku eta horiekin guz-

previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el 1 de marzo de 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
CENTROS DE RECURSOS PARA LA INCLUSIÓN EDUCATIVA DEL ALUMNADO CON DISCAPACIDAD VISUAL

*Artículo 1.–* Se crean los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual como Servicios de Apoyo a la Educación relacionados en el anexo I al presente Decreto con expresión de la localidad en que se ubican, el ámbito geográfico en el que se desarrollarán sus funciones y la plantilla correspondiente a cada uno de ellos.

*Artículo 2.–* El marco de actuación de los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual será el de todos los Centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco sostenidos con fondos públicos, siendo su ámbito geográfico el que se señala en el anexo I de este Decreto para cada uno de ellos.

*Artículo 3.–* Desde los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual se prestará apoyo educativo y asesoramiento:

a) A los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco que escolarizan alumnado con discapacidad visual.

b) A Profesionales de la educación que atienden directamente al alumnado con ceguera o deficiencia visual en centros escolares y a los agentes de la comunidad educativa que intervienen en el proceso educativo de este alumnado.

c) Al alumnado con ceguera o deficiencia visual de la Comunidad Autónoma, escolarizado en cualquier etapa o nivel educativo de las enseñanzas no universitarias, tanto si cursan estudios en centros públicos como concertados. Igualmente será atendido alumnado de Educación de Personas Adultas y de las Escuelas Oficiales de Idiomas.

d) A las familias del alumnado con necesidades educativas especiales derivadas de ceguera o deficiencia visual, en colaboración con los tutores correspondientes y, en su caso, con los Asesores de n.e.e. del Berritzegune correspondiente.

CAPÍTULO II
FINALIDADES Y FUNCIONES

*Artículo 4.–* La finalidad principal de los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual será conseguir la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual, tanto en el ámbito escolar como en el social. Deberán asesorar e intervenir con todos los agentes de la comunidad educa-

tiekin esku hartu beharko dute. Gainera, ikaslearen hezkuntza-ingurunean eragin beharko dute, horiek benetan hartzeko barne. Horrezaz gain, ikaslearen ikasteko eta irakasteko prozesua erraztu behar dute eta behar duten berariazko laguntza eskaini. Xede izango ditu, halaber, irakasleei eta ikastetxeetako bestelako profesionalei aholku ematea, familiei orientabidea eskaintzea eta beren prestakuntza hobetzeko eguneratzeko ekintzetan parte hartzea.

*5 artikulua.–* Honakoak izango dira, aldiz, ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegien funtzioak:

1.– Aholkularitza ematea hezkuntzako profesionalei eta hezkuntza-komunitateari.

a) Gisa honetako ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeekin batera egitea lan, eta aholkularitza eta babesa eskaintzea itsutasunarekin eta ikusteko urritasunarekin zerikusia duten berariazko alderdien inguruan.

b) Gisa honetako ikasleak eskolatuko dituzten ikastetxeetako hezkuntza-komunitateari laguntza pedagogikoa eskaintzea ikaslea ikastetxean sartzeko uneari begira. Ikaslearen ezaugarrien berri emango zaie, baita arreta eskaintzeko taldeak emango dien laguntzaren eta horretarako baliabideen berri ere.

c) Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariekin batera jardutea ikaslearen balorazio psikopedagogikoa egiteko garaian eta ikasleak dituen hezkuntza-premia bereziak eta horiei erantzuteko egoki diren estrategiak zehazteko unean.

d) Jarduera-planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko zereginetan laguntzea, baita egoki irizten diren curriculumaren egokitzapenak edo curriculumera sartzeko egokitzapenak prestatzeko zereginetan ere. Horrezaz gain, horiek garatzeko beharrezkoa den berariazko materiala ahalbidetzea.

e) Ikastetxeari garaiz ematea erabiliko diren eta grabatuta edo Braille sistemara transkribatuta dauden irakas-material eta liburuei, testu-liburuei nahiz irakurketakoei, buruzko informazioa.

f) Berritzeguneekin batera egitea lan eskolako testuinguruan gisa honetako ikasleekin diharduten irakasleak prestatzeko komenigarri izan daitezkeen prestakuntza-ekintzak diseinatzeko eta gauzatzeko garaian.

g) Ikasleei heldu-bizitzara iragaiteko orientabide egokia eskaintzea, Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariarekin lankidetzan.

h) Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariekin eta ikastetxeekin batera egitea lan ikasleei norbanakoaren, eskolaren, familiaren eta bokazioaren inguruko orientabidea emateko garaian, betiere ikusteko urritasunak berekin dakartzan berezitasunei dagokienez. Arreta berezia eskainiko zaie ikaslearen beraren bilakaeran nahiz familian sor litezkeen une erabakitzaileei.

tiva, incidir en el entorno educativo del/a alumno/a para su efectiva inclusión educativa, favorecer el proceso de enseñanza-aprendizaje del alumnado, facilitar las ayudas específicas precisas, asesorar al profesorado y otros profesionales de los centros escolares, orientar a las familias y participar en las acciones de actualización que mejoren su formación.

*Artículo 5.–* Son funciones de los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual.

1.– Asesoramiento a los profesionales de la educación y la comunidad educativa.

a) Colaborar con los centros docentes en los que se escolariza este alumnado, prestando asesoramiento y apoyo en aquellos aspectos específicos relacionados con la ceguera y la deficiencia visual.

b) Proporcionar asistencia pedagógica a la comunidad educativa en la que se va a escolarizar el/la alumno/a la entrada de éste/a en el centro, informando sobre sus características y el apoyo que desde el equipo de atención y recursos se le va a prestar.

c) Participar con los Asesores de necesidades educativas especiales de los Berritzegune, en la valoración psicopedagógica del alumno/a, la determinación de las n.e.e. que presenta y las estrategias pertinentes para dar respuesta a las mismas.

d) Colaborar en la elaboración y seguimiento de los planes de actuación y en la elaboración de las correspondientes adaptaciones curriculares o las de acceso al currículo que sean precisas así como facilitando el material específico necesario para el desarrollo de las mismas.

e) Facilitar al centro escolar información, con la debida antelación, del material didáctico y de los libros, de texto o de lectura, que se vayan a utilizar y que ya existen grabados o transcritos al sistema Braille.

f) Colaborar con los Berritzegunes en el diseño y la impartición de aquellas acciones formativas que se crean convenientes para la formación del profesorado que atiende a este alumnado en el contexto escolar.

g) En colaboración con el Asesor de necesidades educativas especiales de los Berritzegune, proporcionar al alumno/a una adecuada orientación para la transición a la vida adulta.

h) Colaborar con los Asesores de necesidades educativas especiales de los Berritzegune y con los centros educativos en la orientación personal, escolar, familiar y vocacional del/a alumno/a, en lo que se refiere a las peculiaridades que el déficit visual impone, prestando especial atención a los momentos críticos que pueden producirse, tanto en la evolución del propio alumno/a como en su familia.

2.– Itsu diren edo ikusteko urritasuna duten ikasleei laguntzea.

a) Ikaslearekin lan egitea bere burua onar dezan eta itsutasunera edo/eta ikusteko urritasunera egokitzeko prozesuan laguntzea, baita nork bere buruaren kontzeptu egokia osatzen laguntzea ere.

b) Eskolatutako ikasle itsuari edo ikusteko urritasuna duenari behar duen babesa eskaintzea, zuzenean nahiz zeharka, berariaz eta adituen bidez esku hartuz itsutasunarekin edo ikusteko urritasunarekin zerikusia duten esparruetan eta ikusteko urritasuna dela eta egokitzeko eskatzen duten esparruetan.

c) Ikasleari eremu psikosozialean laguntzea, bai berdinen arteko harremanen ikuspegitik, bai mota bereko urritasuna dutenekiko harremanen ikuspegitik. Ikastetxeek antolatutako hainbat jarduera-motatan parte hartu ahal izateko bideak ezartzen laguntzea, beren gizarte-trebetasunak hobetzeko eta beren integrazioa errazteko helburuarekin.

d) Ikasleak eskoletarako behar duen materiala egokitzea eta, hala badagokio, ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea egokitzapen horiek egiteko moduari buruz.

e) Ikaslearen ikastokia egokituko dela bermatzeko estrategiak finkatzea. Horretarako, bere eskolako zereginak egitea ahalbidetuko dion material bibliografiko eta espezifikoaz hornitzea, okupazio-terapeutekin lankidetzan.

f) Ikasleei bideratutako gizarte-trebetasunen programak diseinatzea eta prestatzea, irakasleek erabil ditzaten.

3.-Laguntza eta aholkularitza eskaintzea itsutasunetik edo ikusteko urritasunetik eratorritako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen familiei.

a) Familiekin komunikatzeko plana finkatzea tutoreekin batera eta, horretarako, mezuak homogeneizatzeko irizpideak ezartzea.

b) Familiei edo, adinez nagusi badira, ikasleei beren prestakuntza-ibilbideari eta arrakastaz ikasteko behar dituzten estrategiei buruzko aholkularitza emateko saioak egitea.

c) Familiekin batera ezartzea ikaslearen hezkuntza-prozesuan jarduteko eta laguntzeko irizpide komunak.

## III. KAPITULUA
## EGITURA ORGANIKOA

*6. artikulua.–* Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiak dagokien lurralde-ordezkaritzaren mendekoak izango dira egiturari dagokionez eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren mendekoak funtzioei dagokienez; edonola ere, Hezkuntzako Ikuskatzailetzak gainbegiratu ahal izango ditu.

2.– Apoyo al alumnado con ceguera o deficiencia visual.

a) Intervenir con el/a alumno/a en su propia aceptación, facilitando el proceso de adaptación a la ceguera y/o deficiencia visual y ayudándole en la formación de un autoconcepto apropiado.

b) Proporcionar al alumnado ciego y/o deficiente visual escolarizado el apoyo que requiera, tanto de forma directa como indirecta, con intervención especializada en las áreas específicas relacionadas con la ceguera o deficiencia visual así como en las áreas que precisen adaptaciones debido a la discapacidad visual.

c) Apoyar al alumno/a en el ámbito psicosocial, tanto desde el punto de vista de la relación con sus iguales, como con otros que presenten su mismo tipo de deficiencia, colaborando en el establecimiento de cauces de participación en distintos tipos de actividades organizadas por los centros escolares, con el fin de mejorar sus habilidades sociales y favorecer su integración.

d) Adaptar el material que requiera el/la alumno/a en el aula y, en su caso, asesorar al profesorado del centro sobre la elaboración de estas adaptaciones.

e) Establecer estrategias para garantizar la adaptación del puesto de estudio del/a alumno/a, a través de la dotación puntual del material bibliográfico y específico que le permita el desempeño de sus tareas escolares colaborando con los Terapeutas Ocupacionales.

f) Diseñar y elaborar programas de habilidades sociales dirigidas a los/as alumnos/as con el fin de que el profesorado las utilice.

3.– Apoyo y asesoramiento las familias del alumnado con necesidades educativas especiales derivadas de ceguera o deficiencia visual.

a) Establecer con los tutores o tutoras un plan de comunicación con las familias estableciendo criterios para homogeneizar los mensajes.

b) Desarrollar sesiones de asesoramiento a las familias y al alumno o alumna en caso de que este sea mayor de edad sobre su itinerario formativo y las estrategias precisas para desarrollar con éxito su aprendizaje.

c) Establecer con las familias criterios comunes de actuación y colaboración en el proceso educativo del alumno o alumna.

## CAPÍTULO III
## ESTRUCTURA ORGÁNICA

*Artículo 6.–* Los Centros de recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual dependerán orgánicamente de la Delegación Territorial correspondiente de Educación y funcionalmente de la Dirección de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, sin perjuicio de las funciones de supervisión que correspondan a la Inspección de Educación.

*7. artikulua.–* Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiek ondorengo gobernu-organoak izango dituzte:

a) Kide bakarrekoak:

Zuzendaria

b) Kide anitzekoak:

Zuzendaritza Kontseilua

Koordinazio Pedagogikorako Batzordea

Zuzendaritza Taldea

Klaustroa

*8. artikulua.–* Zuzendariaren zeregin izango dira honakoak:

a) Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiaren jarduna zuzentzea, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailaren ordezkari izatea ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiaren baitan eta berekin batera lan egiten duten erakundeen aurrean.

c) Langileen buru izatea eta indarrean dagoen legeria betetzen dela zaintzea.

d) Baliabidetegiko urteko jarduera-plana prestatzeko lanak koordinatzea eta betetzen dela bermatzea.

e) Klaustrorako, Zuzendaritza Talderako eta Koordinazio Pedagogikorako Batzorderako deia egitea eta horietan buru izatea, baita horietan hartutako erabakiak betetzean direla zaintzea ere.

f) Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiaren jarduna hezkuntza-prozesuetan esku hartzen duten bestelako zerbitzu eta erakundeen jardunarekin koordinatzea.

g) Funtzionamendu-gastuen urteko aurrekontua prestatzea, gastuak onartzea eta ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiaren eraikina eta ekipamendua mantentzeko lanak egiten direla zaintzea.

h) Ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegien urteko jarduera-plana berritzeguneekin eta ikastetxeekin koordinatzea.

i) Araudiari jarraiki berari egotzitako beste edozein.

*9. artikulua.–* Pedagogi-berrikuntzako lurralde-arduraduna izango da Zuzendaritza Kontseiluko buru, eta kideak, aldiz, honakoak: lurraldeko Hezkuntza Berezia Kudeatzeko Unitateko arduraduna, baliabidetegiko zuzendaria, lurraldeko berritzeguneetako zuzendarien ordezkari bat, lurraldeko haur itsuen gurasoen elkarteetako ordezkari bat (elkarte horiek legez eratutakoak badira), lankidetza-hitzarmena sinatu duten erakundeen

*Artículo 7.–* Los Centros de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual tendrán los siguientes órganos de gobierno:

a) Unipersonales:

Director/a

b) Colegiados:

Consejo de Dirección.

Comisión de Coordinación Pedagógica.

Equipo Directivo.

Claustro.

*Artículo 8.–* Corresponde al Director/a:

a) Dirigir la actuación del Centro de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual conforme a los criterios que se establezcan desde la Dirección de Innovación Educativa.

b) Representar al Departamento de Educación, Universidades e Investigación dentro del Centro de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual y ante las instituciones o entidades con las que coordine su acción o colabore.

c) Ejercer la jefatura del personal y velar por el cumplimiento de la normativa vigente.

d) Coordinar la elaboración del Plan de Acción Anual del centro y garantizar su cumplimiento.

e) Convocar y presidir el Claustro, el Equipo Directivo y la Comisión de Coordinación Pedagógica velando por el cumplimiento de las decisiones que se adopten.

f) Coordinar la actuación del Centro de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual con otros servicios o instituciones que intervenga en los procesos educativos.

g) Elaborar el presupuesto anual de gastos de funcionamiento, aprobar los gastos y velar por el mantenimiento del edificio y equipamiento del Centro de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual.

h) Coordinar el Plan de Acción Anual del Centro de Recursos para la inclusión educativa del alumnado con discapacidad visual con los Berritzegunes y los Centros escolares.

i) Cualquier otra que se atribuya reglamentariamente.

